

## Ikasturte hasiera

Ikasturte berriari ekin diogu eta aurten ere Denon Eskolatik agur bero bat bidali nahi dizuegu IGE guztiei, gure elkarte-tara lehen aldiz hurbiltzen diren pertsoneri ongi etorri berezia emanez.

Hainbat gai dugu mahai gainean momentu honetan: eredu linguistikoak, irakasleriaren egonkortasuna, ikastetxeetako obrak, eskola mapa,... baina une honetan hiru atal azpimarratu nahi ditugu ikasturte hasieran kontuan hartzeko: Eskola Kontseiluetarako Hauteskundeak, Denon Eskolaren Batzar Orokorra eta Denon Eskolaren X. Urtemugaren ospakizuna. Beti esan dugu, eta berriz ere errepikatuko dugu, gurasook asko dugula esateko eskolan eta horregatik gure ikastetxe-etako eskola kontseiluetan modu aktiboan parte hartzea oso garrantzitsua da.

Urriaren 25ean ospatuko den Denon Eskolaren Batzar Orokorrean IGE guztiak ordezkaturik egotea nahi dugu Denon Eskola guztiak baikara.

Azkenik, jakinarazi nahi dizuegu ikasturtearen lehen hiruhileko honetan Denon Eskolaren X. Urtemuga ospatuko dugula. Gogoratu behar da jatorria eta abiapuntua eta kontuan hartu 10 urteko ibilbidea gaur eguna bizi eta etorkizuna diseinatzeke gure helburu nagusia eskola publikoa hobetzea dela ahaztu gabe.

Lurdes Lekuona-Presidentea

## Denon Eskolaren Ohiko Batzar Orokorra

Aprobetxatu nahi dugu hurrengo **urriaren 25ean**- Denon Eskolaren egoitzan bertan- Denon Eskolaren Ohiko Batzar Orokorra ospatuko dugula aurreratzeko. Bertan 2007/2008 ikasturtean garatutako ekintza programa eta erabilitako aurrekontua eta 2008/2009 ikasturterako ekintza eta aurrekontu proposamena azalduko dira.

Era berean Ikasleen Guraso Elkarte ezberdinek proposamenak, ekimenak edo eztabaidatzeko interesgarriak izan daitezkeen gaiak aurkezteko une egokia dela uste dugu. Hori guztiagatik berriz ere azpimarratu nahi dugu zein garrantzitsua iruditzen zaigun Denon Eskola osotzen dugun IGE guztiak bertan izatea berriro ere erakundea osasuntsu dagoela erakutsiz.

## agenda

### IKASTURTE HASIERAKO BILERAK IGE GUZTIEKIN

**Ikasturte hasiera honetan IGE guztiekin biltzeko aurreikusi ditugun datak aurkezten dizkizuegu. Zuen elkarteari egokitutako egunean ezin baduzue agertu ondoren adierazten den beste edozein egunetan ager zaitezke.**

#### Aiarako IGEekin bilerak

**Irailak 22, 16:00etan**

**Lucas Rey Ikastetxean - Amurrio**

CEP Antonio Rueda LHI; CEP Arteko Gure Ama; CEP Lucas Rey LHI; IES Zaroabe BHI

**Irailak 22, 18:30etan**

**Canciller Ayala Institutuan - Laudio**

CEP Etxaurren Ikastola; CEP F. Legorburu LHI; CEP Lamuza/W. Disney LHI; CEP Lateorro LHI; IES C. Ayala BHI

#### Añanako IGEekin bilera

**Irailak 25, 18.30etan**

**Badaia Institutuan - Iruña Oka**

CEP Gobeia LHI; CEP Barandiaran LHI; CEP Unamunzaga LHI; IES Badaia BHI

#### Gasteizko IGEekin bilerak

**Irailak 29, 18.30etan**

**Hegoalde Gizarte Etxean**

IPI Ikasbidea Ikastola; CEP Adurtza Ikastola; CEP Judimendi LHI; CEP S. Ignacio LHI; IES Ekialde BHI; CEP A. Ganivet LHI; CEP Cervantes LHI; IES Mendizabala BHI

**Urriak 2, 18.30etan**

**Ipparalde Gizarte Etxean**

CEP O. Apraiz Ikastola; IES K. Mitxelena BHI; CEP Aranzbizkarra Ikastola; CEP Samaniego LHI; IES Samaniego BHI; CEP Arantzabela Ikastola; CEP L. Gereñu LHI; CEP Ramón Bajo LHI; IES Los Herran BHI

**Urriak 7, 19.30etan**

**El Pilar Gizarte Etxean**

CEP Landazuri Ikastola; CEP Santa Maria LHI; CEP San Martin LHI; CEP Abendaño Ikastola; IES Unamuno BHI; CEP Divino Maestro LHI; CEP Luis Elejalde LHI; IES Fco. de Vitoria BHI; CEP Luis Dorao LHI

**Urriak 9, 18.30etan**

**Lakua Sansomendi Gizarte Etxean**

CEP P. Orbiso LHI; CEP Umandi Ikastola; IES Mendebalde BHI; CEP Abetxuko Ikastola; CEP Toki Eder LHI; CEP Lakubizkarra LHI; CEP Zabalana LHI; CEP I. Barrutia Ikastola; CEP A. Fornies LHI; CEP Ibaiondo LHI

#### Errioxako IGEekin bilera

**Urriak 6, 17.00etan**

**Laguardia Institutuan - Laguardia**

CEP Elciego LHI; CEP Labastida LHI; CEP Victor Tapia LHI; IES Samaniego BHI; CEP R. Maeztu LHI

#### Aguraingo IGEekin bilera

**Urriak 13, 17.00etan**

**Aniturri Institutuan - Agurain**

CEP Araia LHI; CEP Dulantzi LHI; IES Aniturri BHI

#### Mendialdeko IGEekin bilera

**Urriak 15, 18.30etan**

**Maeztu Ikastetxean - Maeztu**

CEP Maeztu LHI; CEP Ibernalo LHI; IES Campezo BHI

#### Zuiako IGEekin bilera

**Urriak 22, 17.00etan**

**Garazi Ikastetxean- Legutiano**


CEP Garazi LHI; CEP Izarra LHI; CEP S. Martin LHI - Armaio; CEP V. de Oro LHI; Gorbeia Eskola; IES Murgia BHI

#### Bilera EUSKERAZ

Bilera hau euskaraz egitea nahi duzuen IGEentzat.

**Urriak 8, 18.30etan**

**DENON ESKOLAREN egoitzan**



**X. Urtemuga Denon Eskolak**

HAMAR URTE BATU ETA SEGI

Denon Eskolak 10 urte bete ditu eta hurrengo ikasturtean zehar "10 urte: batu eta segi" lelopean hainbat ekintza antolatuz ospatzeko asmoa dugu. Lehenengoko urratsak aurreko ikasturtearen bukaeran eman genituen hainbat IGEren parte hartzea izan zuen logotipo lehiaketarekin. Irabazlea Amurriko Lucas Rey ikastetxeko Mendiko Gurasok IGEa izan zen. Ideia irabazlearen azken garapena, eta beraz urtemuga honetarako irudia izango dena, ondoan koadro honetan azaltzen dena da. Baina ospakizun honen ekintzarik esanguratsuenak ikasturte honetako lehen hiruhilekoan zehar garatuko dira.

Ekintza horiek zehazten eta borobiltzen goazen neurrian unean uneko informazioa jasoko duzue baina jadanik zenbait gauza aurreratu ahal dizuegu: hurrengo **azaroaren 15ean** Jardunaldi bat izango dugu non hezkuntzari buruzko hizlari bat izango dugun, Denon Eskola eta guraso mugimenduaren ibilbidea islatuko duen bideo bat prestatuko dugu, ikastetxeetara eskainiko den antzezpen bat eta zehaztear dauden beste zenbait ekimen. Hemendik gutxira Denon Eskolaren X. Urtemugako programa jasoko duzue. Zuen gustukoa izatea nahi genuke eta ekintzetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

## Informazio guztia WEB-gunean

Denon Eskolaren [www.denoneskola.org](http://www.denoneskola.org) web-gunean gai hauek guztien inguruko uneko informazioa eta zehaztasun guztiak eta horrez gain ikasturte hasieran hain garrantzitsuak diren bestelako gaien inguruko txostenak aurkituko dituzue: ikasturte hasierako zirkularrak, diru-laguntzak, beka, ...

Gainera, hemendik gutxira Eskola Kontseiluetarako Hauteskundearen inguruko espazio berria zabalduko da non kanpainaren inguruko informazio, dokumentazio eta zehaztasun guztiak aurkituko dituzuen.

Edozein modutan jar zaitezte Federazioarekin kontaktuan edozein argipen, zalantza edo edozein gairen inguruko informazio gehiago behar izanez gero.

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA  
INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD